

BASAGAIN HERRIKO (ANOETA, GIPUZKOA) INDUSKETA
ARKEOLOGIKOAREN

TXOSTENA

XXX. EKINALDIA

2024KO IRAILA



2024ko iraila

Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkarte

Donostia

Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa

SARRERA

2024ko ekinaldia iraileko lehenengo hiru asteetan zehar gauzatu genuen, baina egun horietako baldintza klimatologiko gogorren ondorioz, aurretiaz prestatutako egitasmo eta helburu batzuk aldatu egin behar izan ditugu.

Maldan behera etorritako etengabeko euriaren ura indusketaren guneraino iragaztearen ondorioz, planifikatutako egunen erdian baino ezin izan dugu esku hartu aztarnategian.

Hasiera batean uste ez genuen gune zehatz batzuetan eta ekinaldirako lehentasunezkoztat jotzen den eremuan esku hartzeak emaitza positiboak eman dizkigu, jarraian deskribatuko dugun bezala.

Ekinaldi honetan, azkeneko urteetan esku hartutako eremu osoa desestali dugu (plastikoak kendu eta garbitu), Anoetako Udalak multzo osoaren irudiak ateratzea programatua zegoelako.

Bestalde, indusketa-ekinaldian zehar, jarraipena egin diogu Basagaingo herriaren ondoko pinudi baten mozketari.

Era berean, eta euria egin arren, eskualdeko hainbat herritako eskola-umeen talde batzuk eta helduen talde handi bat igo dira herrira, programatuta zegoen moduan. Haiei guztiei herriko bizimodua eta indusketaren metodologia azaldu zaizkie.



Terrazako 13. bandako lanak 2024an.

HERRIAREN DESKRIBAPENA

Basagaingo herri harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzexka batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik ibai beraren gainean kokatuta dagoen Buruntzako herria (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabal den (2500 m², beraz) eremu bat dauka. Dena den, herrixkaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta

kota oso uniformea mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartu dugun eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitu diren eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m²-ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herriaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, unerren batean harria erauzi zela dirudien bi leku daude; lehenak 40 m² inguruko azalera dauka, eta bigarrenak, berriz 80 m² ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duelarik.



Herriaren goiko aldearen ikuspegi orokorra

Material arkeologikoei eta C14 bidezko datazioei esker dakigu, herriaren induskatutako eremua gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengo artean kokatzen zela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia anitzaz eta jarduera metalurgiko garrantzitsuaren aztarnez gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak), beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a. 220 eta 80. urteen artean datatua, eta zehatzago, ziurrenik, K.a. 175 eta 125 urteen artean), Bascunes txanpon-

etxeko zilarrezko denarioa, eta oin alderantzikatuko eta Iturissa motako fibulak.

Herri honetan orain arte lortutako C14 bidezko datazioak hauek dira:




2360 ± 120 BP, 2320 ± 90 BP, 2310 ± 55 BP, 2170 ± 80 BP, eta 1600 ± 80 BP.

2024KO EKINALDIAN EGINIKO LANAK

Aurtengo ekinaldirako antolatutako egunak irailaren 2tik 20ra bitartekoak ziren, biak barne, eta lantaldea 14-18 pertsona inguruk osatzen zuten: arkeologoak, zaharberritzaileak (2) eta ikasleak, batik bat Historiako eta Arkeologiakoak.

Aurreko ekinaldietan erabilitakoaren antzeko metodologia erabili dugu, esku hartu beharreko eremua ipar-hego eta ekialde-mendebalde norabideko ardatzak dituzten 5 x 5 metroko laukitan banatuz. Lurra ohiko 10 cm-ko lodierako azal edo geruzatan erauzi dugu, maila edo egitura zehatz bat aurkitu arte.

Geruza bakoitza amaitu ostean, induskatutako azalera osoa 1:20 eskalan marraztu dugu.



Esku hartutako eremuaren sareta

Batez ere bost izan dira induskatutako eremuak:



Ekialdeko terrazako harresiaren gune bat (2024)

1. HARRESIAREN BARRUALDEKO HORMA-ATALAREN ETA HERRIRA SARTZEKO GAUR EGUNGO MENDI-BIDEAREN ARTEKO EREMUA: 13W KOADROA

Harresia, bere barrualdeko horma-atalean, 3 metro pasatxoko distantziaraino bistaratu genuen aurreko ekinaldietan, gaur egun Basagain herrira sartzeko mendi-bideraino; baina zalantza bat geratu zitzaigun: norabidea aldatzen zuen esparru harresitura sarrera bat eratuz ala mendi-bideak suntsitu zuen?.

Gune horretan esku hartu izanari esker beste metro bat gehiago atera dugu argitara, eta babesak norabide bera jarraitzen du aldaketarik gabe. Hala ere, 13. bandan garbi ikusten da harresi hori suntsitua izan zela, harri guztiak desagertuz. Puntu horretan sutegi edo su bat aurkitu dugu eta bertan, brontzezko harizpi ugari.

1.1. HARRESIAREN LUZAPENA

Harresiaren zati berriak inguruko gunearen ezaugarri berberak ditu, hau da, neurri handi eta ertaineko hareharri gorrizko eta hareharri horizko blokez

eratua dago, induskatutako ibilbidearen hegoaldeko guneko babes-zatiaren ezaugarria dena.



2024an bistaratutako harresiaren barrualdeko horma-atalaren gunea.

1.2. SUTEGIA

Harresia eteten den puntuan bertan, sutegi edo su bat dago, ikatz zati asko eta brontzezko harizpi finen multzoak (batzuetan elkarren artean txirikordatuak) dituen, baita burdinazko iltze ugari ere.



Ikatz zati eta brontzezko harizpi asko 13W koadroan

2. HARRI ETA SUTEGIAREN LERROKADURA: 13U-13V KOADROAK

13. bandan ekialde-mendebalde norabidean doan harrien lerrokaduraren ezaugarriak eta trazadura osoa zehazteko, eta 2023an irteten hasi zen ontzi handiari dagozkion aztarna berriak lortu ahal izateko, 13U koadroko gunen bat zabaldu dugu: 4 metro ipar-hego norabidean eta 1,5 metro ekialde-mendebalde norabidean.

2023ko ekinaldian argi geratu zen ekialde-mendebalde norabidea zuen horma bat zegoela, hareharri gorriz eta hareharri horiz egina, inguru horretan herriaren harresia osatzen dutenaren ezaugarri berekoa.

Eskuairatutako bi bloke handiz osatutako gunen txiki batean izan ezik, gainerakoan ez zen eraikuntza landua; egitura honi atxikita sutegi edo su bat agertu zen, ikatz zati eta brontzezko harizpi asko zituena. Egitura horrek 13W koadroan, harresia suntsituta dagoen gunean, aurkitutakoaren ezaugarri berberak zituen, nahiz eta elkarrengandik 3 metro inguruko distantziara egon.



13U koadroari dagokion zabaltze gunea.

Arestian aipatutako 13U koadroko zabaltzean, horma mendebalderantz luzatzen zela ikusi ahal izan dugu, gutxi gorabehera 5 metroko luzerako lerro zuzen bat jarraituz.

Gune horretan bertan, kota apur bat baxuagoan, Bigarren Burdin Aroari dagozkion materialak aurkituak genituen; besteak beste, ontzi handi baten ertza, 2023an.

Aurtengo ekinaldian, deskribatzen ari garen hormari lotuta, karlistaldiari dagokion munizio arrastoak aurkitu ditugu. Material horiek Burdin Aroari dagozkion materialen gain-gainean kokatuta daude.

13W koadroko suari lotutako materialak ere karlistaldiari dagozkio.

Bestalde, herriaren gune altuenetik iparralde-hegoalde norabideko lubaki bat igarotzen da, ekialderantz jaisten dena (esku hartutako terraza) ekialde-mendebalde norabidean. Lubaki horrek bat egiten du deskribatzen ari garen hormarekin eta harresiaren etetearekin (suntsiketarekin) 13W koadroan.

Horregatik, argi dirudi horma nahiz lubakia, eta horiei atxikitako materialak, protohistoriako kokalekuan eginiko intrusio karlistak direla. Babes hori

eraikitzeko erabilitako materiala herriaren harresia suntsitutako gunetik hartutakoa izango litzateke.



Ekialde-mendebalde norabideko horma 13. bandan



13. banda, ekialde-mendebalde horma kendu ondoren



13. banda, 2024ko lanak amaitu ondoren



Karlistaldiko lubakia Basagaingo punturik altuenean

3. ONTZI HANDIAREN GUNEA: 13U-13V KOADROAK

Babes-egitura karlista kendu ondoren, 13. banda industen jarraitu dugu harresitik hasi eta 13Uko 2024ko zabaltzea barnean hartu arte.

Burdin Aroko herrian ohikoak diren materialak aurkitu ditugu: zeramika, beirazko alea, burdinazko elementuak, zepak...

Horien artean nabarmendu beharrekoak dira 2023an agertzen hasi zen ontzi handiaren (ia ertz osoa) zati asko, eta orain hondoarekin (osoa) eta gorputzaren zati handiekin osatu dena, nahiz eta oso hautsita egon.

4. MENDEBALDEKO GUNEA: 16R-17R KOADROAK

Aurrez esku hartutako gunea honetan berriz induskatzearen helburua zen lursail-ebaketaren ibilbidea ikustea, material arkeologikotan emankorra den gunea batean. Horregatik berriz hasi dugu indusketa 16R (5 m ipar-hego norabidean eta 2,5 m ekialde-mendebalde norabidean) eta 17R (2 m ipar-hego norabidean eta 2,5 m ekialde-mendebalde norabidean) koadroetan.

Eroritako ur-kantitate handiaren ondorioz, ekinaldi honetako lanak geratu egin behar izan ditugu azal bat induskatu ostean.



16R-17R koadroetako lanen hasiera

5. IPARRALDEKO GUNEA: 17S KOADROA

Mendebaldeko gunean (16R eta 17R koadroak) induskatzen ezin genuenez jarraitu, euriagatik lurrazala egoera txarrean zegoelako, bere kokapenagatik lehorrago dagoen 17S koadroan hasi ginen lanean. Gune horretan induskatzen ibiliak ginen duela urte batzuk, eta zepa aztarna dezente agertu ziren. 3 bider 2 metroko azalera batean lan egin dugu, bi azal jaitsiaz, eta gehiengoa zepa zatiak diren arren, material gutxi agertu da.



17S koadroan irekitako eremua, 2. azala jaitsi ondoren (2024)

MATERIALAK

2024ko ekinaldian aurkitutako aztarna gehienak eskuz egindako zeramikazko ontziak dira, eta horrez gain, kereta, burdinazko elementuak, zepak, beira eta fauna hezurak (gutxi) azaldu dira.

Babes-egitura karlistari lotutako materialei dagokionez, burdinazko (batez ere iltze txikiak) eta brontzezko (harizpiak) elementuak eta munizioa nabarmendu behar dira.

Historiaurreko materialen artean eskuz egindako zeramikazko ontzi handia azpimarratu behar da; horren ertza eta gorputzaren hasiera 2023ko ekinaldian agertu ziren, eta aurtengo ekinaldian osatu egin da hondoa eta gorputzaren zati handiak aurkituta. Zeramika-aztarna horiek gorritutako buztin baten gainean kokatuta zeuden.

Gorputzak *in situ* zeukan zatikatze-egoerak zaildu egin du Gordailuan hura finkatzea eta berreraikitzea errazteko blokeetan erauztea.

Burdinazko materialari dagokionez, 13U koadroan aurkitutako ongi kontserbatutako mutur puntadun bat (ustezko txurroa) nabarmendu behar da.


Era berean, 13U koadroan kolore urdineko beirazko ale-zati bat aurkitu dugu.



2023an, 13V koadroan aurkitutako ontzi handiaren ertz-zati bat



2023an aurkitutako zeramikazko ontzi handiaren ertza zaharberritze-prozesuan



2024an aurkitutako hondo laua, ontzi handiari dagokiona



Ontzi handiaren aztarnak eratzeko prozesua, 2024an



1 metro koadroko trama, zatiaren marrazkia egiteko kokatua



Zeramikaren xehetasuna, guztiz zehaztu aurretik

BESTE JARDUERA BATZUK ETA ONDAREA JENDARTERATZEA

Ekinaldi honetan ezinezkoa izan zaigu lantaldearekin inguruko aztarnategietara ikustaldiak egitea baldintza meteorologikoen ondorioz.

Dena den, irailaren 5ean, indusketako lantalde osoak ikustaldia egin genuen Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentrora (Gordailua, Irun), Sonia San Jose eta Giorgio Studerren eskutik.

Ondarearen zabalkundeari dagokionez, eta zehazki esanda Euskal Herriko eta Gipuzkoako Burdin Aroari buruzkoa, bisita gidatuak egiten jarraitzen dugu Anoetako eta eskualdeko herrietako hainbat ikastetxetako haurrekin. Bestalde, Anoetako Udalak antolatutako helduentzako bisita gidatu bat ere egin genuen.

Urtero bezala, Udal hori arduratu da indusketa-ekinaldia hasi aurretik Basagain herri osoko belarra mozteaz.



Ikastetxe bateko haur-talde bat 2024ko lan arkeologikoak ikusten



Basagaingo herrira ikustaldia

LAN-TALDEAREN OSAKETA SEXUAREN ARABERA:

Indusketako lantaldea 17 pertsonen osatua egon da ekinaldi honetan, horietatik 11 emakumezkoak ziren eta 6 gizonezkoak.

LAN ARKEOLOGIKOEN OSTEAN HARTUTAKO BABES-NEURRIAK

Lanak amaitu ostean esku hartutako eremua estali dugu, aurreko ekinaldietan bezala, landaretza hazi ez dadin eta indusketa-eremua hondatu ez dezan, eta aldi berean lanak errazteko.



Indusketa-eremua, 2024ko ekinaldiko azken egunean estali ondoren

Era berean, gaur egun jabetza publikokoa den herri harresitua mugatzen duten mugarrien kokapena begiratu dugu berriz. Mugaketa horrek aurrez deklaraturako arkeologia gunea nahiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza baten bitartez herriaren inguru osoan lurjabeei eskuratutako 10m-ko zerrenda zehazten ditu.